

HERRI-JABARIKO ESPAZIO ETA EREMUETAN EDARIAK HARTZEA ETA BESTELAKO JOKABIDE HEZIGABEAK GALARAZTEKO UDAL-JARDUERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

HITZAURREA

Galdakaoko Udala, erabilera publikoko espazioetan edariak hartzeko ohiko jardunak -sarri askotan edari alkoholduinak- herritarrei eragiten dizkien kalte larriekin sentsibilizatu, ordenantza hau onestea beharrezkotzat jo du. Ordenantza honen helburua osasun publikoa babestea da -batik bat adingabeena-, bai eta udal-espazio publikoak arrazoiz erabiltzea ere; horrela, bada, herritar guztiek erabili ahalko dituzte bide eta espazio publikoak, zenbaiten jarduera desegokik eta kalearen neurritz kanpoko erabilerak herritarren lasaitasuna eta bakea eta atsedean hartzeko, osasunerako eta bertatik ibili ahal izateko eskubideei kalterik egin gabe. Izan ere, horiek guztiak konstituzioak babesten dituen eskubideak dira, eta administrazioak horiek bermatzen direlako ardura hartu behar du.

Kaltetutako guneeetako elkarte eta auzokoek gero eta gehiago eskatzen dute udalak esku hartzeko, jarrera horiek direla eta jasan behar dituzten ondorio kaltegarriak erabat konpontzeko edo horiek arintzeko. Izan ere, jarduera horiek zenbait ordutan luzatzen dira, arratsaldean hasi eta goizaldera arte irauten baitute, eta kaleak, plazak eta guztiok erabiltzeko eremuak hartzen dituzte; ondorioz, zarata handia sortzen dute, bai eta zikintasuna pilatzen ere, biltzen diren lekuan hainbat gauza pilatzen baitira: ontziak, poltsak, beirak, gorotzak, okadak, etab.

Gainera, jarrera horiek direla eta, beste hainbat pertsona ezin dira kale horietatik lasaitasunez ibili, ez eta espazio, plaza eta aisia-guneez gozatu ere, hainbat pertsona-talde luzaroan baitaude beretan. Hori aisia-jarduera espontaneo da, baina ez dauka neurri zuzentzailearik, alegia, horren gaineko sektore-araudi erregulatzailetik kanpora dago. Hala ere, ondorio kaltegarriak eta kalte larriak dakartza, kutsadura handikotzat jo daitezkeenak, baina ez dago horren ardura duen erakunde antolatzailearik.

Horrez gain, sarri askotan, jarduera horren ondorio dira instalazio publikoen eta hiri-altzarien aurkako jokabide bandaliko, axolagabe eta oldarkorrak.

Udalak, administrazio publikoa den neurrian, bizikidetzeta eta herritarren lasaitasuna bermatu behar ditu, eta, zentzu horretan, galarazi egin behar du batzuek bideak eta espazio publikoak desegoki eta neurritz kanpo erabiltzea, gainerako herritarrek kalterik jasan ez dezaten, bai eta aurretik aipatutako kalte larriak gertatzea ere.

Hori guztia dela eta, ordenantza honen bidez, udalak esku hartzeko dagoen eskaera-kopuru handiari erantzun nahi zaio; aipatutako jarduerak osasun publikoan eta ordena publikoan eragiten dituzten kalteetan esku hartzeko, batik bat adinekoengan eta jarduera horren praktikak auzotarrengan eragindako kalteetan, espazioan edo inguruan gertatzen diren kalte eta hondatzeak barne.

Nabarmentzekoa da administrazioaren eskumenekoa dela, poliziaren funtzioan, herritarren kalte larriak diren gizalegearen kontrako jokabideak galaraztea; izan ere, herritarrek ez dute horiek jasateko behar juridikorik eta bide publikoaren erabiltzaileen jarduera arautu daiteke arazo horiek leuntzeko, herritarren sektore baten eskubide-eraketek eragindako eremuetan bizi direnen eskubideak kaltetzen ez dituztela bermatzeko.

Ordenantza hau egiteko legezko oinarriak honakoak dira:

Konstituzioaren 103.1. artikulua araberak, administrazio publikoak objektibotasunez bete behar ditu interes orokorrak. Legezko testuak, bestalde, 43. eta 45. artikuluetan herritarren eskubide gisa jasotzen ditu osasuna babesteko eskubidea eta ingurumen egokia izateko eskubidea. Beraz, botere publikoek natura-baliabide guztiak arrazoiz erabil daitezela bermatu beharko dute, bizi-kalitatea babestu eta hobetzeko, bai eta aisia egoki erabiltzen laguntzeko ere.

Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen 7/1985 Legearen 4. eta 84. artikuluek udalei herritarren jardueretan esku hartzeko eskumena ematen diete, ordenantzen bidez, erregelamenduak egiteko ahalmena duten aldetik.

Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 1. artikuluan udalek beren herritarren jardueretan esku hartu behar dutela ezarri da, poliziaren funtzioan, baldin eta nahasmendurik edo lasaitasunerako nahasmendu larria izateko edo osungarritasuna edo herritarren moralitatea kaltetzeko arriskurik badago; berriro ere horiek leheneratzeko edo mantentzeko.

Udal ordenantzen bidez arau-hausteak eta zehapenak ezartzeko ahalmena dela eta, badago Tokiko Gobernu Modernizatze 57/2003 Legearen XI. tituluan jasotako legezko gaikuntza. Lege horren 139. artikulua honakoa

dakar: «Tokiko erakundeek, toki-intereseko elkarbizitzako harremanak eta horien zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura, instalazio eta espazio publikoen erabilera egoki antolatzeke, sektoreko araudi zehatzik egon ezean, arau-hausteen sailkapena finkatu ahalko dute, bai eta beharrak, debekuak edo murrizpenak ez betetzeagatik zehapenak ezarri ere (...)».

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Arauen oinarria

Ordenantza honen oinarria honakoa da: osasun publikoa eta osasungarritasuna babestu, ingurumena zaindu, herritarren atsedean hartzeko, lasaitasuna izateko eta egoitzaren bortxaezintasunerako eskubideak bermatu, bai eta bide publikoaren erabilera ordenatua bermatu ere, guztiontzako eremuen neurritz kanpoko erabilera eta erabilera baztertzailerak galaraziz, herritarren arteko elkarbizitza baketsua bermatzeko.

Era berean, espazio publikoaren eta bere elementuen arrazoizko erabilera eta erabilera ordenatua bermatu nahi da, baita espazio publiko eta hiri-altzari garbi eta narriatu gabekoaz gozatzeko eskubidea eta udal-ondarea ere.

2. artikulua.- Arauen helburua

1. Debehatuta dago, hurrengo ataletan zehaztutako baldintzetan, Galdakao udalerriko espazio publikoetan edariak eta elikagaiak hartzea.

2. Horrela, bada, debehatuta egongo da administrazioak berariaz galarazitako kale edo espazio publikoetan edari alkoholik gabekoak edateko -jatekoa izan ala ez izan-, baldin eta, pertsona horiek bertan biltzean edo kontsumo-jarduera egitean, espazio publikoa erabiltzen dutenengan edota auzotarrengan kalteak eragiterik badago, inguruko lasaitasuna hondatzerik badago edo osasungarritasun-egoeran eragiterik badago.

3. Bereziki debehatuta dago herritarren elkarbizitza larriki nahasteko arriskua dagoenean. Nahasmendu hori honako egoeraren bat izanez gero gerta daiteke, bertan bildutako pertsona-kopurua gorabehera:

- a) Leku publikoaren morfologiak edo izaerak herritarren multzoek modu masiboan kontsumitzeko edo jendetza biltzeko parada ematen duenean.
- b) Kontsumoa oinezkoentzat edo espazio publikoaren gainerako erabiltzaileentzat iraingarria izan daitekeenean.
- c) Edari alkoholik kontsumitzen diren lekuetan adingabe ugari edo haurrak eta nerabeak daudenean.

4.- Edateko edo jateko ontziak dagozkien edukiontzietan bota behar dira eta, hala badagokio, espazio publikoan dauden zaborrontzietan. Debehatuta dago bide publikora edateko ontziak botatzea edo bertan uztea: latak, botilak, edalontziak, bai eta bilgarriak, poltsak edo janari-hondarrak edo izaera bereko bestelako objekturik ere.

5.- Ordenantza honek adierazitako egoerak gogoan hartuta, debehatuta daude jokabide bandaliko, axolagabe eta oldarkorrek hiri-altzariak eta instalazio publikoak erabiltzean, baldin eta horiek pertsona eta ondasunen osasunean eta osotasun fisikoan arrisku-egoerarik eragiten badute.

6.- Era berean, debehatuta daude hondatze larriki eragiten dituzten egintzak, besteak beste espazio publikoak edo horien instalazioak, altzariak edo elementuak suntsitzea, altzariak edo higiezinak izan; aurreko 5. atalean aurreikusitako nahasmenduak, azken batean.

II. TITULUA

ZEHAPEN ARAUBIDEA

3. artikulua.- Printzipio nagusiak

1. Ordenantza hau hausteagatik zehapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean araututako prozeduraren arabera ezarriko dira, edo horren ordean aplikatu daitekeenaren arabera. Xedapen honetan jaso ez dena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako zehapen-ahalmena arautu duten printzipioen arabera beteko da.

2. Ordenantza honen aurkako administrazioko arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke. Sailkapen hori Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 7ko 7/1985 Legearen 140.2. artikuluan ezarritako irizpideen arabera egin da. Artikulu hori Tokiko Gobernu Modernizatzeari buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak sartu zuen.

4. artikulua.- Arau-hausteak

1. Arau-hauste oso larriak:

- a) Agintaritzaren agenteak eta botere publikoak ordenantza hau betetzeko dituzten eskumenak erabiltzen ari direnean, horien kontrolatze-, ikerketa- eta zehapen-lanak oztopa ditzaketen egintzak edo ez-egitateak.
- b) Udal-agintariak edo udaltzainek emandako aginduak edo egindako eskaera zehatzak ez betetzea.
- c) Zigor-legeriari eta herritarren segurtasunaren gaineko legeriari kalterik egin gabe, 2.5. artikuluan zehaztutako jokabideak.
- d) Ordenantzaren 2.6. artikuluan zehaztutako jokabideak, intentsitate eta garrantzia berezia direla tarteko, oso larriak dira.

2. Arau-hauste larriak:

- a) Edariak edo jatekoak hartzea, baldin eta ordenantza honen 2.3. artikuluan zehaztutako egoeraren bat edo batzuk gertatzen badira.
- b) Zigor-legeriari eta aplika daitekeen tokiko legeari kalterik egin gabe, 2.6. eta 2.5. artikuluetan zehaztutako hondatze-egintzak, baldin eta oso larriak edo arinak ez badira.

3. Honakoak dira arau-hauste arinak: 2.2. artikuluan zehaztutako kontsumoak hartzea, 2.4. artikuluan zehaztutako eta 2. artikuluko 5 eta 6. zenbakietan adierazitako jokabideak izatea, baldin eta horiek, intentsitatea edo garrantzia dela-eta, oso larriak edo larriak ez badira; horiez gain, ordenantza honetan aurreikusitako eta artikulu honetan aipatu ez diren gainerako arau-hausteak ere bai.

5. artikulua.- Zehapenak

Ordenantza honetan arautu diren arau-hausteentzat aurreikusitako zehapenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen 7/1985 Legearen 141. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki (Tokiko Gobernu Modernizatzeari buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen idazketak jasotakoa), honakoak dira:

- Arau-hauste oso larriak, 3.000 euro, gehienez ere.
- Arau-hauste larriak, 1.500 euro, gehienez ere.
- Arau-hauste arinak, 750 euro, gehienez ere.

6. artikulua.- Esku-hartze zehatzak

Aurreko artikuluetan jasotako kasuetan, agintaritzako agenteek edariak, ontziak edo debekatutako gainerako elementuak, bai eta erabilitako bestelako material edo bitartekoak ere kendu eta zuhurtziaz hartuko dituzte. Higienea eta osasuna direla bide, hartutako edariak eta, hala badagokio, jakiak dagozkion hondakin-edukiontzietan botako dira, berehala.

7. artikulua.- Zehapenak sailkatzeko irizpideak

1. Ordenantza honetan aurreikusitako zehapenen zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasuna hartuko da gogoan, eta, hala badagokio, sailkatzeko honako irizpide hauek:

- a) Arau-haustearen garrantzia.
 - b) Nahita egin izana.
 - c) Eragindako kalteak nolakoak diren.
 - d) Behin eta berriro egin izana.
2. Araua behin eta berriro hautsi delako ulertuko da, baldin eta lehenengo araua hautsi denetik urtebetera izaera bereko arau gehiago hautsi bada, administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpenaren bidez horrela adierazi denean.

8. artikulua.- Arau-hausteen gaineko erantzukizuna

1. Arau-hauslea edo arau-hausleak nortzuk diren jakiteko ikerketak egin ondoren, araua hautsi dutenen partaidetza-maila zehazterik ez dagoenean, erantzukizuna solidarioa izango da, parte hartu duten guztiena.
2. Aita-ama, tutore edo zaintzaileen erantzukizun zibil subsidiarioari kalterik egin gabe, horiek izango dira adingabeek egindako arau-hausteen erantzule zuzenak eta solidarioak, baldin eta engainua, errua edo axolagabekeria gertatzen bada, kargu ez egite soila ere barnean hartuta.

9. artikulua.- Agintaritzako agenteek egiaztatutako egintzak

Ordenantza hau aplikatzeko bideratutako zehapen-prozeduretan agintaritzako agenteek egiaztatzen dituzten egintzek froga-balioa izango dute, interesdunek aurkez ditzaketan frogei kalterik egin gabe.

10. artikulua.-Zehapenen xedea eta horien ordezkapena

1. Ordenantza hau aplikatzeagatik lortutako zehapen ekonomikoen zenbatekoa gazteentzako aisiarako udal-programak finantzatzeko erabiliko da eta horietara atxikiko da, oso-osorik.
2. Ordenantza hau aplikatzean ezarritako zehapen ekonomikoak indargabetu ahalko dira:
 - a) Arau-hausleak Galdakaoko Udalaren organo eskudunak komunitatearen mesederako ezarritako lanak edo jarduerak egitea onartzen badu.
 - b) Arau-hausleak alkoholaren kontsumoa prebenitzeko eta horien ondorioak ezagutzeko udalak zehaztutako ikastaroetan, horrelakorik balego, parte hartzen badu.

11. artikulua.- Zehapenak eteteko prozedura

1. Zehapenak eteteko espedienteak hasi eta ebazteko eta etetea noiz amaituko den erabakitze organo eskuduna eta zehapena jarri zuen organoa bera izango da.
2. Arau-hausleak, eskabide egokiaren bidez, komunitatearen mesederako lan edo jarduerak egiteko edo, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, ikastaroetan parte hartzeko borondatea erakustean hasiko da prozedura.
3. Zehapena etetearen aldeko erabakia ematen bada, organo eskudunak zehapena preskribatzeko epea ere eten egingo du, lanek edo jarduerak edo ikastaroek iraun bitartean.
4. Etenaldi horretan, organo eskudunak egoki irizten duen jarraipena egin ahalko du, dagozkion asistentzia eta lanen emaitzen gainean.
5. Jasotako informazioaren arabera arau-hausleak konpromisoa behar bezala bete badu, agintaritza eskudunak jarritako zehapen osoa edo hori zati batean kentzeko erabakia hartuko du.
6. Aurrekoa zati batean edo osorik bete ezean edo ordenantza honetan tipifikatutako arauen bat berriro hautsiz gero, organo eskudunak zehapena betearazteko espedienteak aurrera egin dezala erabakiko du.

12. artikulua.- Kalteak konpontzea

Ordenantza hau betetzeagatiko zehapenak ez du arau-hauslea kalteak edo eragindako ezbeharrak konpontzetik salbuetsiko; arau-hausleak, eragindako kalte horiek konpondu beharrean, komunitatearen mesederako lanak egiten dituen salbu, 1. artikuluari jarraiki.

13. artikulua.- Zigortzeko eskumena: Udaleko alkate-udalburua ordenantza honetan zehaztutako arau-haustek zigortzeko organo eskuduna izango da, egin ditzakeen eskuordetzei kalterik egin gabe, hala badagokio.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Bakarra.- Ordenantza honetan jasotako arauketaren xedapenak eta aplikazio-eremua aldatu egingo dira, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak edo estatuko administrazioak beren eskumenak erabilia emandako arauak hala ezartzen badute, arau horiek hierarkian goitik daude eta.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.- Galdakaoko Udaleko alkatetza-udalburutzak ordenantza hau egoki interpretatu eta aplikatzeko behar bezalako jarraibideak emateko eskumena izango du.

Bigarrena.- Ordenantza honen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epea igarotakoan sartuko da indarrean.